

ZENBAT BURU

Ion Suarez

ERREPORTAIA

Kokoe Komiki Elkartearen V.

Jardunaldiak

BARRREN

1998ko urriaren 23a
V. urtea - 253. zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

GEHIGARRIA

kiliBARRREN

BERBETAN

Agustin Arakistain,
EEBBetan bizi den
elgoibartarra

ARAZORIK



V. Komiki Jardunaldiak
Euskal Herriko komi-
kigile onenak

“Komikia artea da, marrazkiz eta literaturaz osatutako artea” Kokoeko kideak

K



JON SUAREZ

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Gutxi batzuk zulako

Gauden egunotan, pentsa liteke haur-teskundeez hitz egitea dagokigula hala edo hola aukera ematen zaigunoi. Areago azkenaldiko politikaren egoerak zeresan berririk eskaintzen digun honetan. Egia esan, erori naiz ia tentaldian. Baina, gauzak dauden-daudenean utzi, eta ekainaren 30ean erabakitako izenburuarekin hasi ditut lerro hauek.

Esango didazue nolatan den posible urriaren 23an argitaratu behar-rekoari ekainaren 30an jartzea izenburua. Hona erantzuna: ekainaren 30ean euskaldunok gizon handi bat galdu genuen; Yon Etxaide Itharte idazle eta itzultzailea, abertzale eta euskaltzale donostiarran zendu zen. Baina, halakoetan esan ohi den bezala, bere lanek iraungo dute. Eta iraungo duten lan horien artean liburu bat aipatu nahi nuke, elgoibartarroi, ezagutzea bederen, nolabait badagokigulakoan.

Literatura kontuetan zaila da liburu baten irakurketak zergatik harrapatzen gaituen asmatzea. Harrapatu egiten gaitu, eta kitto. Horixe gertatu zitzaidan niri aspalditxo Etxaideren **GORROTOA LEGE** irakurri nuen. Harrapatu egin ninduela, alegia. Onartzen dut, ordea, kasu honetan, ez zela oso zaila izan zergatia asmatzea. *Jaun Mat-*

xin Ganboakoak, Elgoibarko Olasaotorreko nagusi gazteak,... Hauek dira elaberriko lehenengo hitzak. Eta horietatik aurrera, laurhun orrialdetan zehar, utzi ezinezko irakurketa atsegina.


Ez dagokit niri Yon Etxaidek euskal literaturari egin dion ekarriari buruz mintzatzea, eta, bestalde, badakit liburu hartu eta azpiztitulua irakurtzeak (Oñaz-Ganboatarren gudueta girotutako elaberrir giristinoa) balizko irakurle bat baino gehiago bota deza-keela atzera, nobela historikoa gustuko ez duela edo giristino hitzak begiak erreko dizkiolako. Edo, besterik gabe, laurhun orrialde euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duela.

Niri dagokidanez, airtortu behar dut **GORROTOA LEGE** irakurri eta gozatzearekin ikasi nuela, beste gauza askoren artean, Elgoibarko Olasotarren etxearen dibisak horrela zioela: *Olaso, gitxi batzuk hilako* (gutxi hi bezalakoak, alegia). Laster jakin nuen K. Mitxelenarengandik ‘Olaso guchibazuc ylaso’ zioela zehazki aipua.

Luzaroan iraun duten hitz zahar horiez baliatuz, bihoakio lerro hauetatik elgoibartar honen omenaldi xumea Yon Etxaide Itharteari: gutxi batzuk zulako.

“Literatura kontuetan zaila da liburu baten irakurketak zergatik harrapatzen gaituen asmatzea. Harrapatu egiten gaitu, eta kitto”.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Publizitatea:
 ☎ 943 74 37 04
 Faxa: 943 74 37 04
 E-maila:

barren@topagunea.jalgi.com

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA Ainhoa Lodoso

KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA Miren Moreno

MAKETATZAILEA Bea Ansola

ADMINISTRAZIOA Amaia Martin

GERENTZIA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Irati Agirreazaldegia,

Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,

Mari Karmen Elorza,

Maider Elustondo, Jon Eugi,

Koldo Galdona, Aintzane Garate,

Jon Garate, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo,

Iñaki Jaio, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Nieves Loidola,

Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea,

Julian Segundo, Jon Suarez,

Anjel Ugarteburu, Iban Urizar,

Miren Vallejo.

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

Elgoibarko Udalak, Eusko
 Jaurlaritzako Kultura

Sailak eta Foru
 Aldundiak diruz
 lagundutako
 aldizkaria.



Zezenketarik ez!

Azken egunotan hizpide den 'Maz-zantini Txokoa'ri buruz nire iritzia eman nahi dut, nahiz eta 'gutxiengo' bat izan.

Printzipioz, ezin dut ulertu joan den astean kexa azaldu zuen emakumeak "inbidia" zergatik aipatzen duen pintadei buruz ari denean. Zer harreman dago? Nik ulertzen dudaren arabera, pintadak 'Fiesta Nacional'aren kontrakoak ziren. Bide batez, esan nahi dut, Elgoibarren zein beste edonon, horrelako jairik gabe pasatzeko moduan gaudela, horri kultura esaterik ez dago eta. Aurrehistorian animaliak iraubizitzeko edo defendatzeko hiltzen zituzten garaia gogora ekarri nahi nuke. Baina zezenen kontua ezberdina da. Nik dakidala, zezenak toreatzaileak xixatzen duelako erasotzen du eta ez lehiarako gogorik edo asmorik duelako. Lehiarako gogoia gizakiaren ezaugarri eskusiboa da.

Jai honen kontra nagoela argi laga nahi dut eta espero dut datozen San Bartolomeetako jai egitarauan ez ikustea horren krudela eta gutxi batzuen gustukoa den ekitaldiaren iragarpenik.

Celia Pinacho

Zezenketa zaleen txokoa dela eta

'Choco Taurino' delakoaren presidenteari esan nahi genioke ez gabela gutxiengo bat zezenketen kontra gaudenak. Berak esandakoak argitaratu ziren egun berean ez zegoela zezenketez gozatzen zuen inortxo ere. Guri, torturarik zuzen eta alferrikakoena iruditzen zaigula.

Beste askotan bezala, gizakiak animalia erabiltzen du, haren minarekin, haren lepotik gozatzeko. Bai, alferreko sofrikarioa, borrarero batzuen gozamenerako. Gure jarrera adierazi nahi dugu eta horrelako ekintzarik ez dugula onartuko ere bai. Egia da, ondo dago iritzia eman ahal izatea, espresatu ahal izatea... baina tartean odola dagoenean...

Hau ez da inor mintzeko egindako eskutitza, animalientzako babesa aldarrikatzeko baizik. Gizakiaren menera

bizitzeagatik botere eta ahotsik ez duen hori defendatu nahi dugu. Artearen ize- nian zezenari pika sartu, banderilak ka- teatu eta odolustutzen diharduenean ka- pa gorria muturrean jartzea! Nahikoa da! Esplika egiguzue zertan datzan arte hori. Hori tortura hutsa da.

Bestalde, jakin dugu, pintadak izan direla zuen talde horren aurka. Jarri al zarete pentsatzen, zuen pareta horretan beharbada artelan baliotsu bat duzuela? Justifika al dezake arte- lan horrek zuen haserrea?

Gazte Asanblada

Adio

Joan zara. Eta poliki-poliki egin du- zu. Presarik gabe. Zure izaeraren ba- liozkoak behinberrito azalduz, astiro.

Hamaika egun luze-labur izan di- tuztu, zeu konturatu ere egin gabe, zeure hitzen bitartez, gertukoena, la- gunak eta beste zenbait animatzeko. Egunez eguneko orduetan ITXARO- PENEZ bete dituzunak eta era berean EUTSI! ohikatu dizutenak.

Hamaika egun labur-luze, zeu konturatu gabe zeure erara, agur esa- teko erabili dituzunak. Adorez, apalta- sunez, beti ere umorez. Azken unera arte toailari eutsiz.

Hain emankorra zenuen bihotz ho- rrek huts egin dizu. Baina ziur egon utzi duela inguruan bere urratsa. Urrats sakon eta sendoa, denboraren poderioak ere ezabatuko ez duena.

Sarri entzun izan nituen zuen isto- rioak. Botatoko parrandak, momentu- ko kezak. Askotan izaten nuen zuen pasadizoen berri. Eta noizean behin gertatzen den lez, elkarren artean ezer izan gabe, baginen.

Justuko ezaguna naizen aldetik ezin eskainiko dizut musurik eta egu- nero egin ohi genuen bezala, 'gero ar- te' soil batez agurtuko natzaizu.

To ba, bostekoa Alex! eta laster ar- te. Hain irrifartsu eskaintzen zenidan 'iepa!' hura berriz eskainiko didazun arte.

Joan den asteko partez zorianak!

I. A.

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia**.

Oharra: Urriaren 25eko hauteskondeak direlata, astelehenean, hilak 26, **BARRENEk orri bat banatu du Elgoibar eta Mendaroko emaitzekin.** Nahi duenak okindegietan eta egunkari saltokietan eskuratu ahal izango du erabat doan.



KEXAK

◆ Urasandin bizi den mutiko batek esan digunez, **“King-Kongeko zubia pasa eta gero dauden eskilaretan demaseko kiratsa egon da azken egunotan.** Ez dakit zergatik dagoen horren usain txarra, baina badirudi tuboren bat apurtu eta ura filtratu egin dela. Norbaitek zerbait egitea beharrezkoa da”.

◆ Santa Ana kalearen bukaeran bizi den emakume batek deitu digu 40 eta 50 portalen bitartean bizi direnen jokaera salatzen. **“Jende askok Eroskitik etxera konprak ekartzen dituenen, karroa Eroskira bueltan eramanean, espaloian uzten du.** Orain Eroski itxi egin dute obrak hasi direlako eta azken egunotan 3 karro geratu dira espaloian abandonatuta. Autoak aparkatu ahal izateko edo jendea espaloitik pasatzeko karroak lekuz mugitu behar izaten dira eta karroak batera eta bestera ibiltzen dira. Egunen batean auto batek kolpea hartuko du karro baten kontra”.

◆ Datorren urteko jaietan nobillada bat egiteko as-

moa dagoela eta kexatu nahi du gazte batek. **“Ez nago horrelako gauzeekin ados, animalien torturarekin ondo pasatzea oso gaizki iruditzen zait”.**

◆ Aita Agirre plazan autoa aparkatzen duen herritar batek zera salatu nahi du: **“Lotsagabe batek nire autoari (Ford Fiesta zuria) kolpe bat eman zion joan den astelehen eta asteartea bitartean (urriak 12-13). Norbaitek zerbait ikusi bazuen dei dezala mesedez 943 74 19 13 zenbakira.** Nazka-nazka egin nago ez baita gauza bera gertatzen zaidan lehenengo aldia”.

◆ Herritar batek deitu digu **Santa Ana kaleko Antxustegi denda eta Iraola harategiaren artean dagoen kalezuloan, “zapatuetan batez ere, zakar asko eta txiza usaina”** egoten dela esateko. **“Gainera, erraz labaintzen den tokia da”.** Herritar honek eskaera bat egin nahi dio Udalari: **“mesedez, galipota edo antzeko zerbait botatzea nahi nuke, oso arrisksua baitago euria egiten duenean”.**

B AI, E SAN ?



Elena Alberdi

Misio Taldekoa

Aurreko domekan, Domund Eguna ospatu zen mundu osoan. Elgoibarren ere, beste herri guztietan bezala, diru bilketa berezia egin zen elizan 3. mundura bidaltzeko. Gai interesgarria delakoan, **Misio Taldeko kidea den Elena Alberdirekin harremanetan jarri gara.**

- **Joan den domekako Domund Egunean diru bilketa berezia egin zen elizan. Elgoibartarrak eskuzabalak al gara?** - Bai, oso. Domekan 418.117 pta. jaso zian Parrokian eta Malako elizan 56.000 pta. gehi San Lazaron batzen dana. Zeozer eskatzen badou beti izaten dou oso erantzun ona. Eta horretarako ejemplo batzuk emango dizkizut: Kilometruetan saldu gabe geratu zian kamiseta txikixak, Afrikako Dakkar herrixan misionero katalan batekin kontaktua dakagunez, hara bialdu genitxun. Gero harek fotografixak bialdu zizkigun umiak kamisetiak jantzitxa. Beste behin, hango umiek karameluak zer ziala ez zakixela eta, hemengo dendak sekulako borondatiakin karamelo mordo bat eman eta hara bialdu genitxun. Beste adibide bat: badao hegazkinian ibiltzen dan elgoibartar bat, Manu. Harek jenerua eta dirua askotan eruan digu Cubara eta Frantziara ere jun izan da bere kotxian jenerua eruatera. Herriko emakumiek bendak eitxen ditzue misioetara bialtzeko,...

- **Karta jasotzen duzuenen eskerrak emanez...** - Horrek barrua mobitzen dizu. Gainera, gauza bat argi nahi dot laga: jasotzen dogun dan-dana ailegau eitxen dala, zuzenian bialtzen dogulako. Arrazoi honengatik eta batez ere 3. munduko jendian egoeria telebisuan ikusten dalako jendia oso sensibilizauta dao.

- **Zer esanahi dauka zuretzat ‘solidaritate’ hitzak?** - Ontxe ipini dizuten ejemplo guztixak, hori da solidaridadia. Gainera, urtian zihar donatibo asko ematen digu jendiak. Misionero bat Elgoibarrera etortzen dan bakoitzian, daneri ematen diegu 50.000 pta., daneri. Diruz aparte, beste gauza asko ere eruan izan dabe, eskatzen digutena.

- **Zein helburu eta funtzio ditu Misio Taldeak?** - Taldian 9 lagun gera eta urtian 4-5 kanpaina eitxen ditzugu: gosian kontra kanpainia, Los Rios, Domund, Misiones Diocesanas,... Eta momentu honetan ‘Campana Madrina’ dakagu. 20 ume gaino gehixo dakagu apadrinanta: Bolivia, Madagascar, Marruekos-en,... Honez gain, Solidaridadian denda ere ipiniko dou Gabonetan.



I. URTEURRENA

1997ko urriaren 26an, 72 urte zituela hil zen **JOSE JUARISTI AGIRREGOMEZKORTA ‘ARGIN’ en oroimenez URTEURRENEKO MEZA** izango da Parrokian larunbatean, hilak 24, arratsaldeko 19:00etan. Joaten zaretenoi eskerrak alde zurretik.



KOMIKIAK IKUS - GAI

Ostiralean inauguratu ziren Kokoe Komiki Elkarteak antolatutako V. Komiki Jardunaldiak. Bi urtean behin izaten diren jardunaldi hauek bosgarren ediziora iritsi dira dagoeneko eta aurten Euskal Herriko komikigile onentsuenen lanak izango dira ikusgai Kultur Etxeko erakusketa aretoan. Horrez gain, musika kontzertuak eta pelikulak ere izango dira. Guztia, komikiaren mundua herritarrei hurreratzeko helburuarekin.

Iban Barrenetxea eta Iñaki Raigoso KOKOE taldeko kideak dira. Esan digutenez, duela hamar urte inguru, Ruben Arozena eta Alberto García komiki jardunaldiak antolatu zituzten. Haiek izan ziren Elgoibarko lehenengo Komiki Jardunaldiak, KOKOE oraindik talde bezala eratu gabe zegoen arren. Zaletasunak elkartu zituen hainbat elgoibartar. Ibanek esan digunez, "herriko ia gehienok denda batean erosten genituen komikiak eta elkar ezagutzen joan ginen. Horrez gain, Udal Kultura Sailak antolatzen zuen komiki lehiaketan ere jende bera aurkeztzen zen eta beti berberak irabazten zuten". Horrela bada, Elgoibarren komikiaren inguruko talde bat eratzea erabaki zuten: Kokoe.



LANAK ELKARREKIN KOMENTATU

KOKOE filosofia jakin batekin sortu zen, "herrian komiki zaletasuna zabaltzea eta zaletasuna geneukanak elkartzea, guri interesatzen zitzaizkigun gaiei buruz hitz egitea, gure lanak elkarri erakutsi eta komentatzea...". Iñakik eta Ibanek aitortu digute KOKOE oso eskola ona izan dela, "kritika benetan zorrotzak egiten dira eta hori ona da, zure norabidea alde batera edo bestera eramaten laguntzen baituzu. Azken batean, zertarako balio du dena oso polita dela esatea egia ez bada?", azaldu digu Iñakik.

Gaur egun 19 kide ditu KOKOEek, "baina batzuk kanpoan bizi direnez Elgoibarren 14 lagun inguru izango gara". Ibanek adierazi digunez, "taldea sortu zenean guztiok oso gazteak ginen. Gaur egun, batzuk kanpoan bizi dira, ezkondu edo umeak izan dituzte eta, noski, bizimodua aldatu egiten da", esan digu Ibanek. KOKOEren etorkizuna, Iñakiren hitzetan, "sartu berriak diren 14 urteko gazteen esku dago.

Horien esku eta etorriko diren berrien esku". Izan ere, edonor izan daiteke KOKOEko kidea, "komikiak gustatzea besterik ez da behar eta, noski, laguntzeko prest azaltzea. Ez da beharrezkoa komikiak egitea, batzuei irakurtzea gustatzen zaie eta badago gidoiak idazten duenik ere. Kontua komikien mundua atsegin izatea da".

GUTXIETSITAKO ARTEA

Jende gutxik kontsumitzen ditu komikiak. Ibanek esan bezala, "jendeak pentsatzen du umeei zuzendutako produktua dela". Komikiei hitz egitean *Mortadelo eta Filemon*, *Zipi eta Zape* eta antzekoak etortzen zaizkigu burura, "baina askoz gehiago ere badaude. Umetan komikiak irakurri izan dituzten askok gero ez dute jarraitzen eta pena da, benetan lan bikainak baitaude". Azken batean, Iñakik eta Ibanek jakinarazi digutenez, "inork ez du esaten zinea haurrentzat denik. Komikiak gauza bera dira, badaude umeei zuzendutako komikiak baina baita helduentzat direnak ere.

Komikiak artea dira; marrazkiz eta literaturaz osatutako artea da, komunikatzeko eta espresatzeko modu bat gehiago, zinea, literatura edo musika diren bezala". 100 urte ditu komikiak eta, "gure ustez gaineran darama oraindik ere kultur arloan ardi beltzaren izaera. Ez da baloratzen. Artetik orohar bizitzea zaila bada, are zailagoa da komikigintzatik bizitzea".

Kokoe-ko kideak erakusketaren inaugurazioan Uribarri eta Garay komikigileekin.



KOK-Art

KOKOE elkarteak bi urtean behin jardunaldiak antolatzen ditu eta tartean komiki lehiaketa. Euren asmoa komikiaren berri jendeari ematea izan ohi da, "eta horretarako, komiki erakusketaz gain beste ekintza batzuk ere antolatzen ditugu, jendearentzat tentagarria izan dadin. Besteak beste, musika kontzertuak edo zinea". Aurten Euskal Herriko autoreen lanekin antolatu dituzte jardunaldiak. Aurreko urteetan, berriz, Estatuko autoreak, eta, beldurra eta erotismoa izan ziren gai nagusiak.

Jardunaldi eta lehiaketaz gain, KOKOEK *Kok-Art* izeneko fanzinea ere kaleratu izan du taldekideen lanak bilduz. Guztira lau zenbaki kaleratu zituzten, azkena duela bi urte.

KOKOEK badu oihartzunik gure herritik kanpo, "harrituta geratzen gara, esaterako, Holandatik idazten digutenean. Batez ere *Kok-Art* fanzinea ezagutzen da hemendik kanpo eta balio izan du gure lana ezagutarazteko eta behin edo behin aldizkari eta argitaletxeetatik ere deitu izan digute interesa azalduz".

Talde gaztea da oraindik baina dagoeneko sustrai sendoak ditu. KOKOEren etorkizuna jende gaztearen esku dago, guk hemendik onena opa diegu eta ea urtez urte jardunaldi eta lehiaketak antolatzen jarraitzen duten, komikia gehiago ezagutu eta maitatzen ikas dezagun.

Alberto Ulibarri

"31 urte dituen bilbotar honek 8 urte daramatza komikiak egin gabe. Bere kontura hasi zen komikiak egiten baina sekula ez da komiki irakurlea izan. Albertok publizitate agentzia batean egiten du lan, "gustatzen zaidan mundua da publizitatearena. Izan ere, gustatzen zaizkidan hainbat arlo lantzeko aukera ematen du, marrazki eta ilustrazioak, idazmena eta sormena". Albertok aitortu digunez liburu bat argitaratzeko asmoa du. Komikien inguruan ez dabilen arren, antolatzen diren jardunaldi hauek, "bultzatu eta indartu" egin behar direla dio.



Rober Garay

"34 urte ditu eta bilbotarra da. Txikitatik bizi du komikien mundua, "argizarizko margoak hartu eta istorioak asmatzen nituen marrazkiak eginez". Komiki asko irakurri izan ditu Rober-ek, "baina nire kontura ibiltzen nintzen, zaletasun bera zutenen berri izan gabe, ez talderik eratu ez antzeko beste ezer. 15 urte nituela egin nuen topo marrazkilari batzuekin eta haien bidez ikusi nuen komikien mundua zein zabala den, zer nolako teknikak dauden eta abar". Rober-ek lehiaketaren bidez ezagutu zituen Kokoeko kideak, "irabazi egin nuen eta ordudanik harremana daukat Ibanekin, batez ere. Iban oso tipo sentsiblea da eta hori nabari da jardunaldi hauean. Detailerik txikiena ere zaintzen ahalegintzen da".



Bi egile hauen lanak ikusgai daude kultur etxean beste lau komikigilerekin batera.

Hauteskunde Autonomikoak

Eman behar al duzu botorik domekan?



JOSE ANTONIO BOUZAS
28 urte, garbitzailea

Bai, garrantzitsua da, guz-
tion esku baitago herrialde
honen etorkizuna. Duela lau
urteko alderdiari emango
diot botua, gehien konben-
zitzen nauena da eta.



KARMEN IRIONDO
65 urte, etxeoandrea

Bai, beti jun izan naiz botat-
zera. Hala ere, dudia dakat
zeini eman botua, hori bai,
badakitx zeini ez. Dana da-
la, beti berdinari ematen
diot azkenian.



IÑIGO EGAÑA
33 urte,

Mankomunitateko langilea
Bai, hauteskunde hauek be-
rezixak diazenez danok har-
tu bihar dou parte. Aurreko
hauteskundietako alderdi
berdinari emango diot botoa.



SANTI GARATE
25 urte ikaslea

Ez nao ziur, ze ez dao kon-
benzitzen nauan alderdirik.
Hauteskundeak beti dia gar-
rantzitsuak eta hauek bere-
zixak dia bake prozesua da-
la eta.



ANA FERNANDEZ
26 urte, administraria

Bai. Bizi dugun arazoa kon-
pontzea denon esku dago,
gero oso erraza baita kexat-
zea. Aurreko hauteskunde-
tako alderdi berdinari
emango diot botoa.



ARANTXA LANDA
34 urte, administraria

Bai, garrantzitsua da, ze lau
urterako erabakixa da eta
Euskal Herrixa momentu be-
rezixa ari da bizitzen. Aurre-
ko hauteskundietako alderdi
berdinari emango diot botoa.



Azaroaren 1erako, Domusantu Eguna,
enkarguak lehenbailehen
egitea eskertuko da
*
Erramuak - Zentroak
Artifizialak - Naturalak
Loreak soltean
*
Barunbata 31, egun osoan zabalik
Igandea 1, eguerdirarte irekita

San Frantzisko, 19 Tel: 943 74 42 13

ISPILUARI BEGIRA



**MONTSE
CEREJON**

Etxeikit dendakoa

- **Harrikoa egiteko irratia ala musika nahiago?**
- Musika.
- **Zer desagertaraziko zenuke "kanpana" baten azpian jarriz?** - Inbidia.
- **Zein egoeratan sentitzen zara agobiatua?**
- Zerbait egin nahi baina ezin dudanean.
- **Aulkian eserita zure bizitzako hainbat une pasatzen ikusiko bazenitu, non geratuko zinateke?**
- 15 urte nituenean. Garai ona izan zen, ardurarik gabe, arazorik gabe...
- **Iturritik ura beharrean zer nahi zenuke jaustea?**
- Oin momentuan, dirua.
- **Zoriontasuna moduloka muntatzerik balego, zein pieza erabiliko zenituzke?**
- Batez ere lasaitasuna. Bizitza lasaia bizitza zoriontsua da.
- **Zer da sukaldean sekula falta behar ez dena?**
- Mahai bat. Gaur egun zenbait lekutan sukalde txikia dago eta mahaia jangelan. Nik mahaia beti jarriko nuke sukaldean.
- **Nor elkartuko zenuke zure sukaldeko mahai bueltan?** - Lagunak.
- **Ba al duzu espezialitaterik kozinan?**
- Legatza edo makailoa saltsan.
- **Eramaten al duzu aldizkaririk bainugelara?**
- Bai, beti. Eta ez badaukat, xaboi potoetan jartzen duena irakurtzen dut.
- **Bainua bits askorekin ala batera gabe?**
- Zenbat eta gehiago, hobe.
- **Zer ikusten duzu goizean esnatu berri ispiluan?**
- Ze kareto!
- **Zer galdetuko zenioke ispilu majiko bati?**
- Hemendik bost urtera nola egongo garan ni eta nire ingurukoak.
- **Zein pribilejio izan nahi zenuke?**
- Denbora librea niretzat.
- **Zein arrazoirengatik izan nahi zenuke famatua?**
- Loteria tokatzeagatik, baina famatu izateak ez nau erakartzen.



ESKERTZA

*1998ko urriaren 14an, 78 urte zituela hil zen
EMILIA ETXANIZ JEMEIN en sendiak,
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola
hileta elizkizunetara agertu izana.*



ESKERTZA

*1998ko urriaren 11n, 90 urte zituela hil zen
FELIPE IGARTUA SAGASTIZABAL en emaztea den
Pilar Salaberria Gurrutxagak eta bere seme-alabek,
ESKERTZEN dizkizue jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



● **Betaurrekoak** **Ruandarako**

Elgoibarko Misio Taldea Ruandako biztanleentzako betaurrekoak biltzen ari da. Ruandan bizi den Segundo Aizpurua Urrestillako misiolaria Elgoibarren dagoela aprobetxatuz, hil honen bukaerara arte betaurrekoak batzeari ekin diote. Misiolaria Ruandara joatekoa da hilaren bukaeran eta berak eramango ditu bertara Elgoibarren bildutako guztiak. Haur zein nagusien betaurreko graduatuak jasoko dira, kristal hutsak zein monturak. Nahi duenak Ikus Optikan edo San Lazaro egoitzan laga ditzake edo Misio Taldeko edozeini eman.

● **Iban** **Barrenetxeak** **Urretxuko 10.** **Komiki lehiaketa** **irabazi du**

Urretxuko Udalak antolatzen duen Komiki Lehiaketaren 10. edizioaren irabazlea Iban Barrenetxea komikigile eta ilustratzaile elgoibartarra izan da. Ibanen komiki irabazlea Bukowskiren 'Pulp' liburuaren parodia da, "50. hamarkadako detektibeen munduari buruzko parodia". Lehen sari hau irabazteagatik 40.000 pta. jasoko ditu Ibanek. Urretxukoaz gain, beste sari batzuk ere irabazi ditu: Portugaleten Komiki Lehiaketan 2. saria, aurtengo San Bartolome jaietako kartel lehiaketan bigarren saria eta iazkoan lehenengo saria. Irudian, Ibanek egindako autorertratua.



Artazo baserriaren berreraikuntzaren aldeko kanpaina **200.000 pta. bildu dira San Roken** **eta 221.000 pta. San Migelen**

Aurreko domekan, hilak 18, idi-demak jokatu ziren San Migel auzoan Artazo baserriaren alde dirua batzeko. San Migel auzoko *Soarte* baserriko Juan Ezkiagaren idiek, 2.000 kiloko harriari tira eginez, 49 plaza betetzea lortu zuten (1.176 metro), lehenak geratuz.

Ikusle dextente hurreratu ziren San Migelera idi-demak ikustera, denera, 221.000 pta. batzea lortu zelarik. San Migel auzoko Jai Batzordekoak "oso pozik" daude batutakoarekin eta eskerrak luzatu nahi dizkiete ikusleei, Herri Kirolen Federazioari, idien jabeei eta ezertxo kobratu gabe trikitia jotzen aritu ziren Baltzola anaiei.

200.000 pta. San Roken

Sallorenteko Jai Batzordeko kideek azaldu digutenez, San Rokeko auzotarrak ere dirua batu dute Artazokoentzat.



Abuztuan San Roken izan ziren jaietan 200.000 pta. bildu ziren eta pasa berri den astean helarazi dute aipatutako diru kopurua. Artazo baserriaren berreraikuntzarako diru batze kanpainan ari diren sallorentearrek eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiete San Rokeko Jai Batzordekoari, San Migel auzoko Jai Batzordea osatzen dutenei, auzotarrei eta alkate guztiei, "euren laguntza berean estimagarria izan baita".

● **Jasone Osororen 'Tentazioak' ipuin-liburuaren 3. edizioa kaleratuko da**

Jasone Osoro elgoibartarraren 'Tentazioak' ipuin-liburua sekulako arrakasta izaten ari da salmentari dago-kionean. Joan den martxoan Elkarlanean argitaletxeak lehenengo edizioa atera zuenetik, BARRNEko lankide honen ipuin-bildumak bigarren edizio bat ere ikusi du kalean. Izan ere, liburuaren 1.500 ale kalerratu eta bi hilabetera bigarren edizioa atera zuen Elkarlanean argitaletxeak. Orain, bigarren edizioa ere agortu denean, hirugarrena ateratzekoan dira. Azken kalerrapen honek 1.500 ale izango ditu, aurrekoek bezala.



● **25 ikasle hasi dira** **IMHko Txandakako** **Injinerutzan**

Astehenean, hilak 19, IMHko Txandakako Injinerutzaren promozio berriak 98/99 ikasturteari ekin zion. 25 ikasle dira datozen hiru urteotan ikasketa hauek egingo dituztenak. Ikasten ari diren bitartean, ikasleak enpresetan arituko dira lanean egun erdiz. 24 enpresak hartuko dute parte ekimen honetan. Bulego teknikoa (diseinua), produkzioa, logistika, merkataritza teknikoa, kalitatea eta mantenimendua bezalako arloetan lan egiteko aukera izango dute ikasleek. Aurtengoarekin, hiru dira Estatuko lehenengo esperientzia berri honen promozioak.

Tango dantza saioa antolatu du Haritz Dantzari Taldeak azaroaren 6rako

Haritz Dantzari Taldearentzat urte berezia da. 25 urte betetzen dituela-eta, ikuskizun berezia antolatu dute Herriko Antzokian Udal Musika eta Dantza Fundazioarekin batera azaroaren 6rako. Jose Inazio Sarasuak esan digunez, “badakigu bai musika bai dantza mota hau elgoibartar askoren oso gustukoa izango dela”. Ikuskizunak ‘Tangoneando’ izenburua dauka eta Carlos Gardelen

tango klasikotik Astor Piazzollaren tango berrira bitarteko piezak eta dantzak ikusi eta entzun ahal izango dira. Dantzariak Monica Narbaiza eta Carlos Zampirain dira eta musikarrien artean, besteak beste, Pascal Gaigne, jazzaren munduan aritua eta Sorotan Bele, Duncan Dhu eta talde ezagun askorekin diskoak grabatu dituena, eta, Iñaki Alberdi soinu-jole irundarra daude.



Kokoe Komiki Elkartearen Jardunaldiak martxan

Joan den ostiral iluntzean inauguratu zen Kokoe Komiki Elkarteak antolatutako komiki erakusketa (argazkian). Inaugurazioaren ostean, zine emanaldia izan zen Herriko Antzokian. 120 bat lagun joan ziren pelikula ikustera “baina gaur gauean (urriak 23, ostirala) izango den emanaldi bikoitzera askoz jende gehiago joatea espero dugu”. Jardunaldiak amaitzeko, bihar, hilak 24, bi talde australiarrek kontzertua emango dute Gaztetxean.



Pakearen alde,
enpleguaren alde,
...EUSKAL HERRIAREN ALDE

EZKERRAREN ORDUA



ezker batua

Leku publikoa okupatzeagatik kobratzen den zerga

Leku publikoa okupatzeagatik 98 urteko zergak ordaintzeko epea hilaren 31n amaituko da. Helbideratu gabeko ordainagiriak etxera bidaliko dira eta berauek ordaintzeko agiriarekin udal bulegoetara edo edozein banketxetara joan behar da. Hauek dira epe honen barruan ordaindu beharreko zergak: espalioen ondoan lagatzen diren ibilgailuen eta aparkalekuen erretserbaren prezio publikoak, mahai eta aulkiekin okupatzen den bide publikoa, eskaparate, bitrina eta portaden zerga, taxien zerga eta Altzolako etxebizitzaren alokairua. Aipaturiko epea pasatu eta gero ordaindu gabekoie dagokioen gainkarga kobratuko zaie. Ordainketa errazteko, ordainagiriak helbideratzea gomendatzen da. Argibide gehiago 943 94 44 14 zenbakian.

3,5 milioi ptako diru laguntza lortu du Udalak Epaitegia berritzeko



zako Justizia Sailetik epaitegia behar bezala atontzeko, ordenagailuak eta altzariak berritzeko eta abar. Azken urte honetan Udaletxe-ko hainbat sailetan berrikuntza lanak egin dira, besteak beste, Ongizate sailean eta idazkaritzan. Barrutik hasi-

Elgoibarko Udaletxean kokatuta dagoen Epaitegian hainbat obra egingo dira epe laburrean. Izan ere, Udalak 3,5 milioi pezetako dirulaguntza lortu du Eusko Jaurlarit-

tako konponketa eta itxura berritzea kanpora ekartzea ez legoke batere gaizki, Elgoibarko Udaletxe-ko hornemek duten garbiketa beharra ondo nabarmena baita.



LAN ESKAINTZA

BARREN *astekarian*

ZUZENDARIA eta KAZETARIA behar dira

ZUZENDARIA - ESKATZEN DA

- Kazetaritzan lizentziatua edo komunikabideetan esperientzia
- Lantaldeak koordinatzeko gaitasuna eta komunikaziorako dohaia
- Euskara maila altua (ahoz eta idatziz)
- Gida-baimena eta autoa

KAZETARIA - ESKATZEN DA

- Kazetaritzan lizentziatua edo ikasketak amaitzean edukitzea
- Euskara maila altua (ahoz eta idatziz)
- Gida-baimena eta autoa

BALORATUKO DA (kasu bietan)

- Argazkigintza mundua ezagutzea eta Elgoibarren bizitzea.

ESKAINTZEN DA

- Zuzendaria: 8 orduko lan-kontratua (urtebeterako/ 4 urtera luzatzeko aukerarekin)
- Kazetaria: 6 orduko lan-kontratua (urtebeterako/ 4 urtera luzatzeko aukerarekin)

Izena emateko azken eguna: AZAROAREN 13a (ostirala)

Curriculum-ak eta informazio gehiago: Elgoibarko Izarra K. I. Ubitarte 4, behea (Tel. 943 74 16 26)



H

ilabete honetako argazkia **Anttoni Longartek** lagatakoa da. Esan digunez, 1954. urteko maiatzean Arantzazura egin zuten peregrinazioan atera zuten.

Hona hemen erretratuan agertzen direnen izen-abizenak:

Aurretik eta ezkerretik hasita: **Mari Karmen Arrieta, Itziar Arrieta** eta **Miren Garate**.

Atzean, ezkerretik: **Anuntzi Urruzola, Anttoni Longarte** eta **Arantzazu Arrieta**.

Azkenengo ilaran, ezkerretik hasita: **Frantzisko Urain, Ramon** eta **Jose Izurrategi** (umea) eta **ezezagunak**.

MENDAROKO ARTISTAK

Mendaro herri txikia izan arren, badaude artistak ere: zuzendakariak, musikariak, margolariak... Han eta hemen ibiltzen dira euren lanbide edo zaletasuna lantzen eta erakusten. Honek honetako erreportajea egiteko hiru elkarrizketaturekin hasi gara. Alde batetik, Arantxa Egaña, Dorleta Lazarobaster, Arritxu eta Ainhoa Urbieta ditugu, Debako "Goaz" antzerki taldeko kideak. Bestetik, Juan Agustin Arriola "Artañola" bibolinjolearekin izan gara eta, azkenik, Aitor Etxeberria margolariak bere lanak aurkeztu dizkigu.

ARRITXU, AINHOA, DORLETA ETA ARANTXA. "GOAZ" ANTZERKI TALDEKO KIDEAK

Nola sartu zineten antzerkian? Zenbat denbora daramazue?

- Dorleta eta Arantxa ikastaro baten bitartez sartu eta besteak beste kuadrilakoak zirenez euren bitartez norbait falta zela ikusita. Dorleta eta Arantxak 10 urte inguru daramate, Ainhoak 5 urte eta Arritxuk hiru.

- Ordu asko sartu behar al dira ondo antzezteko?

- Ondo antzezteko bizitza osoa behar duzu. Guk asteazken eta ostirale-tan entsaiatzen dugu eta gero emana-aldiak daude. Batez beste astean laupabost ordu sartzen ditugu.

- Zaila al da gidoia buruz ikastea?

- Bai, segun eta zein paper tokatzen zaizun. Zuzendaria gustura egon behar da papera interpretatzeko duzun erarekin eta, ondorioz, zure interpretazioa zuzendariaren arabera aldatu eta egokitu behar da.

- Zenbat kidek osatzen duzue taldea?

- Momentu honetan hamalau kide gera, lau mendarotar eta besteak debarrak. Gazteenak 14 urte ditu eta zaharrenak 66.

- Zer motako antzerkia egiten duzue?

- Baldintza bakarra euskaraz izatea da. Motari dagokionean, berri, azkenaldian umorezko antzerkiarekin ari gera. Azkenengo hiru obrak barregurazkoak izan dira baina garrantzia gehiago du euskaraz izateak eta taldeari egokitzeak.

- Nola egiten duzue antzezlanaren aukeraketa?

- Antzezlanaren aukeraketa antzezteak

baino lan gehiago ematen du. Izan ere, gaur egun euskaraz oso antzezlan gutxi idazten dira eta antzeztu ez direnak aukeratzen ditugu. Obra desberdinak bildu, irakurri eta bakoitzaren iritzia jaso eta gero aukeratzen dugu.

Zer moduzko giroa duzue taldean?

- Oso ona. Familia bat gera, gure haserreekin eta egoskortasunarekin, etxean bezala. Ez badago giro onik taldea ezin da aurrera joan.

- Antzezteko ez da lotsarik izan behar, ezta?

- Ez du garrantzirik. Azkenean, aktore onenak lotsatiak dira. Antzerkiak berak erakusten dizu ez dela lotsatia izan behar.

Hasi al zarete antzezlan berriren bat prestatzen?

- Prestatzen ez baina bagabiltza antzezlan berri bat bilatzen. Momentu honetan "Gure buruari kuku" obrarekin jarraituko dugu beste urte eta erdir. Orain emana-aldi berri bat prestatzen ari gera, Antonio Maria Labayen-en obra txiki bat da. Antzezlan haundi bat hurrengo urterako prestatuko dugu.

Arrakasta izaten al duzue jendearekin?

- Egin izan dugun antzezlan guztetara etorri izan da jende pila bat ikustera. Euskal antzerki taldeen egoera ikusita oso media altua daukagu eta batez ere azken obra honekin izan dugu arrakasta. gainera, taldeak 25 urte dauka eta horrek prestijioa ematen dio. Urte batean herri batera joanez gero, hurrengo urtean ere deitzen dizute ezaguna baitzara.



AGUSTIN ARRIOLA
Bibolinjolea

- Noiz hasi zinen musika munduan?

- Beti gustatu izan zait asko musika mundua. Aspaldi hasi nintzen, lehendabizi dantzari bezala. Ez nintzen konsziente musikatik biziko nintzenik baina piskanaka mundu horretan sartzen zera.

- Zenbat urterekin hasi zinen bibolina jozen?

- 22 urterekin, bai solfeoa eta baita bibolina ere, baina aurretik kitarra eta beste zenbait instrumento jotzen nituen. Donostiako musikeskolan egin nuen karrera eta gero hainbat irakasle atzerritarrekin ibili izan naiz: Dimitri Tchokov, Christian Hilfreind eta abar.

- Zergatik aukeratu zenuen bibolina?

- Erakarpen berezi bat izan nuen. Garai batean Gwendal bezalako taldeak asko entzuten ziren eta haiek bibolinista bat zeukaten. Haiek ikusi eta entzunda gustatu eta horrela hasi nintzen.

- Oso gogorra egin al zitzaizun ikastea?

- Instrumentu guztiak dira gogorak eta zailak, eta disziplina asko eskatzen dute. Baina gogorra izan arren, gustatzen ba zaizu errazagoa da.

- Talde batean hasi al zinen?

- Ez, hasieran bakarrik. Ikasten hasi nintzenean ordu pila bat sartzen nituen, 8 bat ordu egunean eta ez neukan denborarik beste ezertarako. Donostiako musikeskolako orkestan jo izan nuen 8 bat utez. Maila bat hartuz gero, derrigorra da Orkestan jotzea. *Alboka* taldean, berriz, duela pare bat urte hasi nintzen.

- Eta zer nahiago duzu, bakarrik ala taldean jotzea?

- Biak dira politak. Taldean jotzea politagoa eta errazagoa da, beharbada erresponsabilitate gutxiago daukazu. Bakarka jotzea gogorragoa da. Halere, *Alboka* taldearekin nabil eta ez dut bakarkako kontzerturik ematen.

- Zein musika mota jotzen duzue *Alboka*?

- Folk musika, euskal musika. Musika herrikoa da, dantzak, abesti zaharrak...

-- Zer moduz kontzertuekin?

- Zorte ona eduki dugu. Aurten 20 kontzertu inguru eman ditugu eta beste horrenbeste geratzen zaizkigu urtea amaitu bitartean. Gainera, Noruegan eta Italian ere ibili gara. Egia esan, kanpoan gehiago jo dugu hemen baino.

- Bi diska dituzue, ezta?



- Bai, bigarrena atera dugu orain gutxi, "Bi beso lur" izenokoa. Ni taldean sartu aurretik Txomin Artolarekin beste bat atera zuten.


- Bibolinarekin jarraitzeko asmoa, beraz.

- Bai, gustatzen zait eta aurrera jarraituko dut. Taldean jotzeaz gain klaseak ematen ditut Deban eta Zumaian, ze kontzertuetatik bakarrik bizitzea oso zaila da. Euskal musika nahiko baztertua ikusten dugu eta gure asmoa bultzatza litzateke.

AITOR ETXEBERRIA
MARGOLARIA

- Aitor, noiztik eta nondik pinturarako zaletasuna?

- Txikitatik datorrit afizio hau eta familian ere bazeuden esku ona zutenak. Hasieran pintore batekin egon nintzen eta berarekin oinarritzko gauzak ikasi nituen. Gerora, pintore berriak ezagutu ditut eta beraien pintatzeko erak kontrastatuz joan naiz ikasten.



- Zer nolako pintura mota egiten duzu?

- Batez ere paisaiak, baina nere ikuspuntutik, hau da, paisaia horretan agertzen diren irudi eta elementuak ez ditut berez diren bezala isladatzen. Denetik daukat. Urtebetez irudi abstraktoak pintatzen ibili nintzen baina gehienbat figurazioa apurtuz. Horren aurrean jendeak abstraktoa dela esaten du.



- Denbora asko behar al da horrelakoak egiteko?

- Bai, denbora asko eskaini behar diozu eta egunero aritu behar zara piska bat. Nahiz eta ez pintatu, egun guztia daukazu burua bueltaka. Eskua behar da eta hori ez da bi hilabetetan ikasten. Gaitasuna hartzen duzun bitartean pintura beste modu batera ikusten duzu, planteamendu desberdin baten bidez.

- Herritik kanpoko lehiaketetan parte hartzen duzu, ezta?

- Bai, baina gero eta gutxiago. Urtean hiru edo lau lehiaketatan izaten naiz. Normalki Espainia mailan ibiltzen naiz.

- Irabazi al duzu lehiaketarik?

- Bai, hemen inguruan bai. Espainia mailan postu on batekin konformatu beharra izaten da. Burgosen bigarren postua lortu nuen. Mendaron behin lehenengo saria irabazi nuen.

- Denbora librean margotzen al duzu?

- Gehienak denbora librea daukadanan margotzen ditut, lehiaketak noizean behin bakarrik izaten baitira.

- Erakusketarik egin al duzu?

- Duela hiru urte Madrilen erakusketa bat egin nuen eta duela bi beste bat Eibarren. Margotzea afizioa da eta ahal dudan bitartean jarraitzeko asmoa daukat.

❖ **Eusko**

Legebiltzarrerako hauteskundeak 1998

Datorren igandean, urriak 25, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak izango dira. Mendaron 1.155 pertsonak emango dute botua. Hauteskunde mahaiak San Jose ikastetxean egongo dira goizeko 8:00etatik arratsaldeko 20:00etara bitartean.

❖ **1999. urterako**

Udal zergak

1998ko irailaren 29an egindako Udaltzatzen 1999 urterako ondoko zergak onartu ziren:

Zerga Igoera

- Ibilgailuen gaineko zerga +%2
- Establezimenduen irekiera +%2
- Udal hilerria +%2
- Azpiegitura hidraulikoen finantzaketa kanona +%5
- Zabor bilketa +%2
- Ur hornidura +%2
- Ibi iraunkorra +%2

Ikusten denez, zerga gehienak %2 igo dira, IPCa, alegia. Azpiegitura hidraulikoen finantzaketa kanonak, berriz, %5eko igoera izan du zerga honen 1998. urtean zehar 1.500.000 pta.ko defizita izan baitu.

❖ **Irteera Gernikako azokara**

Urriaren 26rako, Mendaroko Jubilatuko Elkarteak irteera antolatu du Gernikako azokara. Bazkaria Gatikan (Butroi) izango da eta ondoren Unbeko Amabirjina bisitatuko dute. Irteera goizeko 8:00etan izango da estazioetik.

❖ **Ohitura higieniko-dietetiko eta osteoporosiari buruzko hitzaldia**

Azaroaren 11n, arratsaldeko 17:00etan, Rosa Azkue geriatrak hitzaldia emango du Kultur Etxean. Hitzaldian bi gai jorratuko dira: ohitura higieniko-dietetikoak (kolesterola, diabetisa, loditasuna) eta osteoporosia. Ekintza hau Lagun Betikoak Jubilatuko Elkarteak antolatu du Udalaren laguntzarekin.

'Euskal Hilabete' arrakastatsua

Euskal Batzordeak antolatutako 'Euskal Hilabetea' amaitu da dagoeneko. Programa honen helburua euskarazko kultur eta aisialdirako jarduerak jendeari hurbiltzea zen eta, ikusitakoaren arabera, asmoa lortu da. Txirristaka eta Arboleta tabernak bete egin ziren Karrereren ipuinak

entzuteko eta Ormolan gazte mordo bat bildu zen 'Txan Handia' magoaren ikuskizuna ikusteko. Kilometroak jaira joateko bi autobusak ere bete egin ziren eta Mikel Urdangarinek Mojen kapilan emandako kantaldia nahiz eta oso polita izan, espero baino jende gutxiago joan zen.



Yoga ikastaroa

Azaroaren 3an, asteartea, yoga ikastaroari hasiera emango zaio Kultur Etxean. Klaseak martitzen eta eguenetan izango dira arratsaldeko 15:30etik 16:30era eta Deba-ko Idoia Martikorenak zuzenduko

du. Ikastaroan parte hartu nahi dutenek 943 19 23 48 telefonora deitu eta Idoiarengatik galdetu edo Botikan eta Sastrierian eman dezaketeko izena. Yoga ikastaroaren prezioa hileko 4.000 pta.koa da.



Agustin Arakistain 62 urteko elgoibartarra da. Gaztetan Musika Bandan klarinetea jotzen zuen, Koro parrokiaklean bakarlarria izan zen, tornero lana egin zuen eskolan ikasten zuen bitartean eta bere ametsa futbolaria izatea zen. Halere, kasualitateak bideratuta, zesta puntan hasi zen eta poliki-poliki, gero eta frontoi gehiago pasata, Mexikora joan zen. Gaur egun Orlandon (EEBBak) bizi da eta masjista alan egiten du. Urruti bizi bada ere, elgoibartar jator honek bere herria gutxienez urtean behin bisitatzen du.

“Gorputza Orlandon eta bihotza Elgoibarren duen euskalduna naiz”

– Zure gurasoek *Kamiñerokua* jatetxea erosi zuten.

- Bai. Jaiotzaz bergararra naiz baina oso txikia nintzela gurasoek *Kamiñerokua* taberna eta frontoia erosi zituzten eta hemen egin nintzen elgoibartar peto-pettoa. Denbora asko pasatzen nuen frontoian eta azkenean ni neu ere hasi nintzen pilotan. 17 urterekin Roke Etxabe eta biok Luistarren txapelketan parte hartu genuen Donostian, eta Zaragozan jokatu zen txapelketa nazionalen parte hartzeko sailkatu ginen. Irabazi eta Bartzelonara joan ginen.

– Gainera, eskaintza profesionala egin zizuten.

- Bai. Buelatu ginenean Bartzelonatik deitu zidaten esanaz ea interesatzen zitezidan urtebeterako kontratua pilotan jokatzeko. Garai hartan lanean negoen eta es-

kola profesionalean ikasten. Ikasketak amaitu nahi nituen eta ezetz esan nien Bartzelonakoei. Baina hurrengo urtean berriz deitu zidaten eta pilota munduan probatzea erabaki nuen. Bartzelonan sei hilabete pasatu nituen pilotan eta tornero lanean. Abenduan bueltatu nintzen.

– Baina....

- Baina ordurako Palma De Mallorcan jokatzeko pilotariei idatzi nien bertara joateko eskaera eginenez. Urtezahar egunean deitu zidaten eta ilusioz joan nintzen. Goizez soldadutza egin eta arratsaldean pilotan jokatzeko nuen.

– Mallorcatik lesionatua bueltatu zinen.

- Bai. Eskumuturra lesionatuta neukan eta pilota lagatzea erabaki nuen. Horregatik, lanean hasi nintzen

delineante. Halere, ordurako aita Mallorcan izana zen eta han ikusi ninduen lehen aldiz pilotan. Elgoibarrera etorri nintzenean masaiak ematen zizkidan egunero eskumuturrean bera masajista baitzen. Egun batean pilotan entrenatzeko esan zidan eta animatu egin nintzen. Asteburuetan pilotan egiten nuen eta astean zehar delieneante eta masajista, aitarekin.


– Baina, Mexikon aukera atera zitzaizun.

- Bai. Markinako Txutxo Larrañagak jolasean ikusi ninduen eta berak aipatu zidan Florida eta Mexikoko kontua. Deitzeko esan zidan eta nik duda barik deitu nion. Mexikora joatea eskaini zidaten. Mexikon nengoela Orlandon frontoiak ireki eta aukera eskaini zidaten hara joateko. 37 urte daramatzat bertan, *Micky Mouse*ren ondoan. Pilota laga nuenean beste gauza batzuetan sartu nintzen. Gaur egun, besteak beste, masajista naiz.

– Urtean behin Elgoibarrera bisita.

- Gorputza Orlandon eta bihotza Elgoibarren duen euskalduna naiz. Oporrak hemen pasatzea gustatzen zait, pilak kargatu behar ditut, familia eta lagunak ikusi, euskara erreziklatu... Euskaldunak langileak, arduratsuak, zintzoak eta argiak gara eta badakigu egoerei aurre egiten. Harro nago euskaldun izateaz. Eta nire hezkuntzan izugarri eragin zuten Ezenarro, Zabala, Aizpitarte eta Elkorro irakasleak eskertu nahi nituzke hemendik. Hau osasuna da niretzat. Han ondo bizi naiz baina familia eta lagunak urruti izateak min egiten du.

AGUSTIN ARAKISTAIN



BESTEAK ESANA
 “Oso harro nago nire anaiaz.”
 JESUS ARAKISTAIN, anaia.



Trinidad Barrutia

Orain dela 47 urte Trinidad Barrutia elgoibartarrak Arjentinara alde egin zuen. Gerra sasoi betearen. "Nobixua eibartarra nakan eta hara

jun bihar ginala esan zian. Ni ez nauan prest haura berriro bueltan etorri arte zain egoteko, eta horregatik, ezkondu eta bixok jun ginan Arjentinara". Trinidad, Bahía Blanca hirian bizi da gaur egun bere semearekin eta suinarekin. Beste alaba bat ere badu eta honek eman dio biloba, bakarra momentuz.

Orain dela 19 urte alargun geratu zen Trinidad eta azkenengoz duela 2 bat urte izan zen Elgoibarren bisitan. Gustura etorriko litzateke berriz bere jaioterrira, bertan dituen lagunak agurtu, Plaza Handian eseri eta berba egin ahal izateko baina, duela gutxi hankatik operatu dute eta sendatu bitartean behintzat, ez du berriz bisitan etortzerik izango. Gainera, azken aldian Arjentinan jasanduten inflazio igoerak erabat lurjota laga du bertakoen ekonomia eta asko garestitu da bizimodua.

Trinidad erraz moldatu da Arjentinaren bizimodura, hala ere, Elgoibar du bere bihotzeko herria. Hitz egiterakoan luzaroan Arjentinan bizi dela igartzen zaio. Hala ere, emakume honek ez du euskara ahaztu. Gaztelaniaz ari denean soilik ateratzen zaio arjentinarren azeno kantarin eta goxoa.




bidaia agentziak babestutako atala

Foruen plaza, 3
Tel: 943 74 39 12

Basilio Etxaniz Etxaniz

(1904-1986)



- 1904ko otsailaren 26an jaio zen San Lorentzoko *Agarre* baserrian. 7 anai-arreba ziren, hirugarrena bera.
- San Lorentzoko maisuarekin ibili zen eskolan. Bestelako ardurak ere bazituen: etxe-ko eta baratze-ko lanetan eta aldameneko baserrietako garoa biltzen jardutea.
- Beranduago *Arostegi* baserrira aldatu zen familia osoa. Basiliok 18 urte zituen.
- Gazte guztiak bezala, erromerietara joaten zen. Mutiko ausarta, jenio bizikoa eta itxura ederrekoa zen. Saltaka egiten zuen bailarakoekin, eta pultsuan pisua altxatzen ere ibiltzen ziren, orduan modan zegoen bezala.
- Sasoi hartan atleta asko zegoen Elgoibarren. Basilio izan zen Gipuzkoako Jabalina Txapelketa Elgoibarrera ekarri zuena.
- San Pedroko fabriketan egin zuen lan. Beranduago Forjas de Elgoibar lantegian hasi zen.
- Auzoko *Bekoetxe* baserriko Martina Iriondorekin ezkondu eta 5 seme-alaba izan zituzten.
- Zaletasun handia zuen ehizarako. Sarritan joaten zen Burgos, Palencia eta inguruetara.
- *Muxillo* baserriera kuadrilarekin afari-meriendak egitera eta karta jokoan aritzera joaten zenean benetan gozatzen zuen Basiliok.
- Hargin lanak ere egin zituen hainbat obratan, estima handia ziotelarik gizon egokia, zintzoa, langilea eta indartsua zelako.
- Familia gogortu zuenean emaztearekin denboraldiak pasatzera joaten zen Nafarroara.
- Gustukoa zuen hil bukaerako feriarra joatea eta San Lorentzoko jaiak ikaragarri atsegin zituen.
- Familia giroko eta sinesmeneko gizon hau 1986ko abenduaren 28an hil zen 82 urterekin.

Juanito Gorostiza

gofi

- ✍ Haurrentzako arropa
- ✍ Gaztetxoentzako arropa

Giza eskubideen enparantza, 1 · ☎ 943 74 46 53

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behe. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

DIERKI
IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ 943 20 35 15
☎ ABERIAK 943 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa)
● 20600 EIBAR



ina garagarza



ste honetako 'erretratu zaharra' atalerako bi argazki hauek **Fausto Vítores**-ek ekarri dizkigu. Berak ere ez daki oso ziur duela zenbat urte atera zuten erretratua baina 20 bat izango ditu gutxienez. Bertan Debako Lasan egin zen Arrantza Txapelketako sari banaketako bi une agertzen zaizkigu. La Unión Arrantza eta Ehiza Elkarteak urtero antolatzen duen txapelketa da, gaur egun oraindik antolatzen dena.


Bi argazkiotan, sari-emaile lanetan **Jose Luis Azurmendi** agertzen zaigu, La Unión-eko orduko zuzendaritzakoa, eta bere alboan, papera eskuan, **Juan Mari Osoro**. Goiko argazkian, 3. saria jasotzen **Manuel Arregi** (†) dago; behekoan, berriz, 4. saria irabazi zuen **Antonio Mugerza** (†).

Txapelketari bukaera emateko, La Unión-ekoek ohitura zuten lagunarteko bazkaria egiteko.

***Oharra:** Joan den asteko erretratu zaharreko informazioa Gloria Arriolak emandakoa da. Maria Cristina maistra Gelatxorrota baserrian ez dela bizi adierazi zigun baina itxura denez, oker zegoen. Berak esan digu argi uzteko M. Cristina Gelatxorrotan bizi izan dela beti eta gaur egun ere bertan bizi dela.



Deba-Mutriku ein dot aurten eta asko gustau jata



Ion Zubiaurre

- **Adina:** 17 urte.
- **Zer ari zara ikasten?**
LOGSEko 2. maila.
- **Zer ikasketa egiteko asmoa?**
Injinerutza ikasi nahi dut.
- **Uretako beste kirolik egiten duzu?**
- Bai, surfa eta urazpiko arrantza.
Baina azken hau nahiko arriskutsua da nahiz eta lantzian behin pieza ederrak hartzen diazen.

- **Igeriketa Eskolan zaude.** - Txikitari hasi nitzan igerixan baina oin dala bost urte laga ein naban, ze alde batetik, ikasketak eta bestetik klarinetia... dana eitzeko astirik ez nakan. Baina iaz berriz hasi nitzan, ze gero eta gehixo gustatzen jatala konturatu naiz.

- **Hasieran ez zenuen konpetitzeko asmorik.** - Iaz hasi nitzanian entrenadoriak esan zian nahiko ondo nenbilela eta udaberriko torneo batera jun nitzan. Neretzako konpetizian lehenengo aldixa zan. Ondoren, Gipuzkoako txapelketara jun ginan baina papel batzuk ziala-eta ezin izan gendun konpetidu. Gero Eibarko torneuan izan nitzan eta hirugarren postua ein naban.

- **Urtebetean hobekuntza handia igarri duzu?** - Uste nabana baino handia. 100 metro libreetan 9 segundotan hobetu naban nere markia. 200 metroan eta 50 metro tximeletan ere asko hobetu dot. Beste estiluak, bularra eta bizkarra, gutxio eitzen ditzut. Lau estiluak menperatzen dixut baina krol eta tximeleta dia gogokoenak.

- **Tximeletak zailena ematen du.** - Gertatzen dana da beti ohitxu gerala aurrerut eitzen diazen estiluekin. Tximeleta iaz perfekzionau naban eta edonork ikas dezake gogua jarritxa. Indar haundi-xa bihar da eta asko nekatzen da.

- **Egunero entrenatzen duzu?** - Aurten egunero juteko asmua dakat. Iaz astian hiru ordu eitzen gendun baina bat-

zuetan egunero jutun nitzan nere kontura. 1.500 metro eitzen nitxun baina aurten fuertio hasi gera, 1.800 edo 2.000 metro egunero. Hasi aurretik muskulak luzatu bihar dia eta artikulazioak berotu. Gero, 500 metro etixen ditzugu krolian piskat berotzeko, eta azkenik, estiluak lantzen ditzugu, eguneko estilo bat. Amaieran inportantia da luzamenduak berriz eixia ze bestela gogortu eitzen diaz muskulak.

- **Aurten federatu mailan arituko zara.** - Bai eta nahiko zaila ikusten dot. Iaz Gipuzkoa mailan ibili ginan eta zaila iruditxu jatan. Aurten gogorraua izango da, ze Euskal Herri mailan ibiliko gera. Hala ere, nere helburua markak hobetzia eta noraino heltzeko gai naizen ikustia da. Horretarako teknikia, indarra eta erresistentzia hobetu bihar dia.

- **Itsasoko trabiesiak ere badaude, Deba-Mutriku, adibidez.** - Aurten jun naiz lehenengo aldiz eta asko gustau jata. Aurten Debatik Mutrikura izan da eta esaten dabe alderantziz baino errezaua dala, baina korrientia Mutrikutik Debara dao. Trabiesia hau oso politxa da, erresistentzia lantzen da eta asko gustau jata. Bederatzigarrena heldu nitzan eta 42 pertsonak hartu gendun parte.

- **Zenbat denboran egin zenuen distantzia?** - 3 km. dia gutxi gorabehera eta 56 minutuan ein naban.

- **Pentsatu al duzu triatloian aritzea?** - Korrikan txarra naiz eta bizikletan oso gutxi ibiltzen naiz.

Maialen Mora, urrezko domina frantziako Judo Torneon

Ibai Kirol Elkarteko Maialen Morak, Frantziako Sauvagnon herriko Nazioarteko Judo Torneon hartu zuen parte hilaren 18an. Lau borrokaldi gainditu ostean, Maialenek 63 kg arteko pisuan urrezko domina lortu zuen 'ippon' kalifikazioaz. Denboraldi oso ona egitea espero du Maialenek, kontuan izan behar baita 16 urtez azpiko mailan lehen urtea dela eta Maialenek 13 urte baino ez dituela. Elgoibartar honen urrezko domina bakarra izan da Frantziara Gipuzkoatik joandako guztien artean (neska eta mutil), eta duela bi urte ere, urrezkoa lortu zuen bakarra bere anaia Egoitz izan zen.



ESKOLARTEKO KIROLAK

AGENDA (urriaren 24a, 2. jardunaldia)

SASKIBALLOIA (Herri Eskolan)

- **Benjamin mutilak** ■
- 10:00 Ikastola A - Pilar B
- 11:00 Pilar A - Ikastola B
- 11:30 Mendaro A - Ikastola C
- 12:30 Herri Eskola A - Herri Eskola B

■ Benjamin neskek ■

- 10:30 Pilar A - Ikastola A
- 12:00 Ikastola B - Ikastola C

ESKUBALLOIA (Kiroldagian)

- **Alebin mutilak** ■
- 12:00 Mendaro A - Deba Urdinak
- **Alebin neskek** ■
- 9:00 Ikastola A - Jauja E
- 9:45 Jauja D - Ikastola B
- 10:30 Pilar B - Pilar A
- 11:15 Deba Horiak - Ikastola C

ESKUBALLOIA (Ikastolan)

- **Alebin mutilak** ■
- 9:00 Jauja A - Pilar B
- 9:45 Ikastola B - Jauja B
- 10:30 Herri Eskola - Mendaro B
- 11:15 Deba Berdeak - Pilar
- 12:00 Deba Gorriak - Ikastola C

FUTBOLA (Mintxetan)

- **Infantil mutilak** ■
- 11:00 Insti B - Pilar A
- 11:45 Ikastola - Deba
- 12:30 Insti A - Pilar B
- **Infantil neskek** ■
- 10:00 Mutriku - Insti
- 10:45 Ikastola E - Ikastola D
- 11:30 Pilar B - Ikastola B
- 12:15 Pilar A - Ikastola C

Eskubaloia, 98/99 denboraldia

Senior neskek eta mutilak

Aste honetan Elgoibar Kirol Elkarteko senior nesken eta utilen taldeak aurkeztuko dizkizuegu. Aipagarria da duela bi urte desagertu zen nesken ekipoa berriz sortu dela aurret. Jubeniletatik igotako hainbat neskek, lehengo ekipoko 2 lagunek, Eibar-ko taldeetatik etorritako beste bik eta 5 mutrikuarrek osatzen dute IMS Elgoibar nesken taldea. Senior neskek bezala, mutilen taldeak ere patrozinatzailea lortu du aurret, IMH. Hona hemen zein diren bateko eta besteko taldekideak.

Senior Mutilak



IMH Elgoibar. Atzean, ezkerretik hasita: Andoitz Agirregomezkorta ordezkarria, Gorka Muruamendiaraz, Jon Ulibarri, Iker Astigarraga, Zigor Esnaola, Oier Gurrutxaga, Josu Iriondo eta Angel Iriondo ordezkarria. Makurtuta: Xabier Zelaia, Patxi Aranberri, Aitzol Garmendia, Iñigo Altuna, Jon Gurrutxaga eta Jon Zubiaurre. Taldea osatzen duten beste jokalariek hauek dira: Karmel Leon, Ibai Gurrutxaga, Arkaitz Sanchez, Aitor Garate eta Ion García.

Senior Neskek



IMS Elgoibar. Atzean, ezkerretik hasita: Eneko Kortabarria entrenatzailea, Ainhoa Torres, Jone Gonzalvos, Eider Mendizabal, Irma Aldazabal, Ainhoa Aduriz, Patricia Rodriguez, Arianne Peñaranda, Leire Dieguez, Nicoleta Citu eta Olga García. Makurtuta: Aitziber Tamayo, Idurre Arreitunandia, Ainhoa Goikoetxea, Amaia Jauregi, Erkuden Idiakenez eta Alazne Rementeria. Argazkian agertzen ez den beste taldekidea Lore Agirreazaldegi da.

EMAITZAK

Areto Futbola

Gu-Vi 1 - Zur Ta Lur Elg. 3 (1. maila)
Cer. Nogales 0 - Zur Ta Lur Elg. 4 (Auton.)

Eskubaloia

Tecnomeca Elg. 15 - Askartza 32 (Kad. mut.)
IMH Elg. 26 - Loliola 19 (Senior mut.)
Ermua 23 - Pagoaga Elg. 20 (Kad. nes.)
Ermua 10 - Unceta Elg. 9 (Jub. nes.)
Kukullaga 10 - IMS Elg. 22 (Senior nes.)
Pneumax Elg. 29 - Askartza 36 (Jub. mut.)

Futbitoa

Los Herminios 0 - Los Peñascos 2
Aide Globun 0 - S. Braga 7
PSK 4 - Kunta Kinte 5
Berrogei Duro 3 - Lojantzi 7
Aizkorak Mendibil 5 - Menisco 1

Futbola

Haundi 1 - Noja 3
Usurbil 1 - Elgoibar 1 (1. erreg.)
Pedrusko 1 - Urki 2 (2. erreg.)
Athletic 4 - Elgoibar 1 (L. N. jub.)
Elgoibar 0 - Eibar 7 (1. jub.)
Elgoibar 4 - Anaitasuna 1 (Kad.)
Elgoibar 2 - S. Tomas Lizeoa 0 (Inf.)
Hamaika Bat 0 - Elgoibar 5 (Neskak)

Idarraga Kafeak 2. saria

HAUNDIko jokalaria erregularrena 98/99
JOKALARIAPUNTUAK

1- Eneko	19
2- Beitia	18
3- Aitor Trebiño	13
4- Txasio	7
5- Igor	7
6- Iker Leonardo	6
7- Muguruza	6
8- Loren	5
9- G. Leonardo	4
10- Diaz	4
11- Elkoro	4
12- Caro	3
13- Madina	3

AGENDA

Areto Futbola, Kiroldegian

Ostirala, 23
22:10 Zur Ta Lur Elg. - Past. Agirre (1. maila)
23:10 Zur Ta Lur Elg. - Astilleru (Auton.)

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 24
15:30 Pedrusko - Gazteak (2. erreg.)
17:30 Elgoibar - Euskalduna (1. erreg.)
Igandea, 25
12:00 Elgoibar - Astileku (Inf.)
16:30 Elgoibar - Urola (Neskak)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 24
16:00 Pagoaga Elg. - Askartza (Kad. nes.)
17:30 Unceta Elg. - Askartza (Jub. nes.)
19:15 IMS Elg. - Ekarialde (Senior nes.)

Pilota, Ikastolako frontoian

Ostirala, 23
21:30 Gipuzkoako Txapelketa
Lagunak - Soraluze (Kadeteak)
Lagunak - Aretxabaleta (Jubenilak)
Lagunak - Aretxabaleta (Gaztetxoak)
Lagunak - Aretxabaleta (Seniorrak)

Futbitoa, Kiroldegian

Igandea, 25
9:00 Menisco - Los Herminios
10:00 Kunta Kinte - Aide Globun
11:00 Berrogei Duro - PSK
12:00 S. Braga - Aizkorak Mendibil
13:00 Lojantzi - Los Peñascos




RI 2L

Zer ordu dira hauek?

Country-ak betidanik izan du folklore kutsu gogor bat, nahiz eta denborarekin *Hank Williams*-etik urrun dagoen talde eta abeslari askok bereganatu. EEBBetatik ateratzen den adarretik, neo-country izenez ezaguna den estilo honen barruan *Lambchop*, *Lisa Germano*, *Hewaltabouts* edo *Will Oldham* (Palace) aurki ditzakegu (kalitatezko hainbat ikuspunturen eredu gisa). Madrilen badagoen estilo honen barruan sar genezakeen talde interesgarri bat, **MIGALA**. Orain arte 'Diciembre 3 a.m.' izeneko lan bakarra argitaratu dute, nahiz eta bigarren diska ateratzear egon. Diskoa entzun ondoren, *Nick Cave* edo *Lambchop*-en itzalak harrapa zaitzake, baina zuzenean entzun ondoren *Leonard Cohen*, *Tindersticks* edo (zergatik ez?) *Madredeus* bezalako erreferentziak aditu daitezke. Ahotsak, kitarrak, eskusoinua, txeloa, sintetizadoreak, perkusioa eta sampleak erabiltzen dituzte paisaia baten koloreak bailiran, tritura eta atsekabearen ispiluan txuribeltzez margotutako malkoak isladatuz, Cortazarren olerki bati musika jartzetik, *Sex Pistols*-en bertsiio anarkiko bat egiteraino. Eskerrak kalitatea nonahi aurki genezakeela.

Iban Urizar



Gurean Bai Hitzarmenak euskara sakontzeko ikastaroa antolatu du

25 lagun ari dira euskara idatzia lantzen

Elgoibarko Izarrako *Gurean Bai* hitzarmenak euskara sakontzeko ikastaroa antolatu du proiektu honetan sartuta dauden elkarte eta erakundeetako zuzendari, idazkari, irakasle eta idazteko premia dutenentzat. Ikastaroa dagoeneko martxan dago eta denera 25 lagunek eman dute izena. Hiru motatako moduluak daude. Lehenengoan Euskaltzaindiaren arauak landuko dira. Bigarrenean idazkuntza lantzea da helburua eta, azkenik, hirugarren moduluan administrazioko idazkiak aztertu eta landuko dira. *Gurean Bai* hitzarmeneko teknikaria den Abel Irizarrek adierazi bezala, "izena eman duten gehienek 3 moduluak egiteko asmoa dute. Bestalde, hitzarmenean sartuta dauden 53 entitateen artetik, 11k hartuko dute parte ikastaroan". Jesus Mari Makazaga, euskal filologian izentziatua,



Jesus Mari Makazaga euskara irakaslea klasea ematen.

EHUko irakaslea eta Euskaltzaindiko Gramatika batzordeko partaidea da ikastaroa ematen ari dena. Hitzarmenaren helburua eguneroko jardunean euskararen erabilpena indartzea izanik, idatzizko arloa lantzeko asmoarekin antolatu da ikastaroa. Klaseak Kultur Etxean ematen ari dira larunbat goizetan, guztira 20 ordu.

Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketak 98'ko oinarriak kaleratu dira

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek urtero antolatzen duen 'Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketak'-en edizio berriaren oinarriak kaleratu dira. Elgoibartarrek ezezik, bertan ikasten ari direnek ere har dezakete parte. Lanak Elgoibarko Izarra Elkartera eramane behar dira abenduaren 18a baino lehen, kartazalean maila zehaztuz. Bost maila daude: LHko 3. eta 4. mailak marrazkia eta gutuna egin beharko dute Olentzero izango delarik gaia. LHko 5. eta 6. mailakoek alkateari gutuna idatzi edo gai librean Etxegiña bertso paperetan aritzeko aukera izango dute. DBHko 1. eta 2. mailakoetan, ipuinen ataleko gaia "...eta musu bat eman nion" da eta Etxegiña bertso paperetan "Ispiluak ez du gezurrik esaten".

DBHko 3. eta 4. mailakoek gai librean idatzi beharko dute ipuin bat eta azkenik, LOGSEko 1. eta 2. mailakoek ere, gai libreko ipuina. Sariak 2.000 pta.tik hasi eta 25.000 pta. bitartekoak dira.

Laiotz literatur aldizkaria

Pasa den ostiralean, 97ko Idaz Lehiaketetako irabazleen lanak biltzen dituen 'Laiotz' literatur aldizkaria banatu zen. 1.000 ale inguru kaleratu dira ikastetxeetan irakurtzeko adinean dauden ikasleen artean. Maila bakoitzeko irabazlearen lana ezezik, bakoitzarekin egindako elkarrizketa ere irakur daiteke. Aldizkaria jaso nahi izanez gero, Elgoibarko Izarraren bulegora jo (Ubitarte 4, behe).



Mireia Etxeberria

IKASLEA - 18 URTE



1 - Merezi al du bizitzea? Eta Elgoibarren bizitzea? - Bai, momentu on asko daude, oin arte behintzat. Eta Elgoibarren bizitzia nahixao dot hiri baten baino, lasaixo bizi gera.

2 - Eutanasia praktikatuko al zenuke familiako batekin? - Ikusten badozu oso gaizki dauala eta ez dakala irtenbiderik bai, ze sufritzen dau bai berak eta baitxa familixiak ere.

3 - Hil eta gero? - Ezer. Danok nahiko gendun sinistia zeozer dauala baina ez dot uste. Jaio, bizi eta hil itxen gera.

4 - Lehenengo ni eta gero besteak? - Askotan begiraten dozu leleno zuria baina zuriari kalterik in gabe bestiei lagundu ahal badiezu, hobe.

5- Nori kontatzen dizkiozu arazokak? - Ez dakat arazo gehixegi baina daudenian lagunengana jotzen dot.

6 - Zein da zure bizitzako anbizioa? Eta bizioa? - Pozik eta ondo bizitzia, lan on bat eukitzia eta gustura egotia. Eta biziua txokolatia.

7 - Sinesten al duzu politikan? Ematen al duzu boturik? - Ez asko, baina egixa esan oin arte ez naiz gehixegi preokupau. Hala ere, domekan botauko dot, botau in bihar da.

8- Noiz joan zinen azkenekoz manifestaldi batera? - Institutuan, Gaztetxian aldeko manifestazio batera.

9 - Euskalduna naiz eta harro naogo? - Bai, fijo!

10 - Zerk galerazten dizu loa? - Ondo itxen dot lo beti, arazuak ez dituxut ohera eruaten.

11 - Zer iruditzen zaizu Elgoibar ko Gaztetxea? - Oso ondo dao eta bihar zan. Gu larunbatero juten gera baina lanik ez dou itxen. Askotan itxita egoten da, ze inork ez dau lanik itxia nahi eta ez daude turnorik.

12 - Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin? - Ke ba! Neska txintxo txintxua naiz.

13 - Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien? - Gehixen nahiko libertade ematen diela, ni baino hamar urte zaharraua dan ahizpa eukitziak asko zabaltzen dau bidia. Gitxien? Ez dake ezer txarrik.

14 - Laguntzen al duzu etxeko lanetan? - Nere kuartua itxen dot eta batzutan fregaua ere bai.

15- Alkoholik gabe ondo pasa daiteke? - Pasau leike baina beti eraten dozu piska bat, ez?

16 - Irakurri duzun azken liburua? - Oin "Cabaret" ari naiz irakurtzen.

17 - Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe? - Onena maitasuna sexuakin baina, aukeratzekotan, oin maitasuna sexurik gabe au-

keratuko nuke.

18 - Birjinitatea traba ala bertutea? - Ez bata eta ez bestia. Ez da adinan kontua, bere momentua dauka eta ailegatzen darian ailegatzen da.

19 - Neska batek maite zaituela esango balizu? - Mutil batek esango bazian bezela, lagunak izaten jarraituko gendun.

20 - Sinesten al duzu betirako maitasunean? - Ez dot uste. Urtiekin maitasuna ohitxura eta kariño bihurtzen da.



INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 943 461111
 Txanda hartzeko . . . 943 743354
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . . . 943740385
 D.YA (anbulantzia) . . . 943 464622
 Gurutze Gorria . . . 943 743864
 Mendaroko Ospitalea . . . 943 756264
 Odol Emaileak . . . 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 943 744366
 Udal Kirol Patronatua . . . 943 744415
 Kultura Zerbitzua . . . 943 742158
 Mendaroko Udala 943 756100
 Ongizate zerbitzua 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . . . 943 740296
 Zaharren Biltokia 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka) . . . 943 74 44 80
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco 943 74 40 73
 El Correo Español . . . 943 74 10 82
 Egin 943 10 84 21
 Zazpiki irratia . . . 943 74 34 74

23

ostirala

.....

22:15 ZINEA
 "Dobermann" eta
 "El condón asesino"
 Antolatzailea:
 Koko Komiki Elkartea

24

larunbata

.....

12:00 ZAZPIKI
IRRATIAREN BILERA
 Ganbaran

19:30-22:15 ZINEA
 "Deep impact"

22:00 KONTZERTUA
 "The Breadmakers" eta
 "Driveway Service"
 Gaztetxean
 Antolatzailea:
 Kokoe Komiki Elkartea

25

igandea

.....

16:30-19:30-22:15 ZINEA
 "Deep impact"

26

astelehena

.....

22:15 ZINEA
 "Deep impact"

29

osteguna

.....

22:15 ZINE KLUBA
 "Marius et Jeannette"

30

ostirala

.....

22:15 ZINE KLUBA
 "Marius et Jeannette"

22:30 ANTZERKIA
 Antzezlanak:
 "Geure buruari kuku"
 Antzeztaldea: Goaz (Deba)
 Gaztetxean

ZINEA



Zuzendaria: Mimi Leder.
Antzezleak: Robert Duvall,
Tea Leoni, Elijah Wood.

Deep Impact

Kometa bat lurraren kontra txokatu behar da eta EEBBetako biztanleek, euren etxeak utzita, hirietatik alde egiten dute. Hondamena datorrela ikusita, aditu talde bat lurra salbatzen ahaleginduko da. Horretarako beharrezkoa da kometa suntsitzea. Espaziontzi bat lehergailuz betetzen dute eta kometa atmosferara iritsi bonbak eta lehergailuak jaurtiko dituzte kometaren kontra.

● Zinea Herriko Antzokian eta kontzertua Gaztetxean


Kokoe Komiki Elkartearen V. Jardu-naldien barruan, gaur, hilak 23 (ostirala), 'Dobermman' eta 'El condón asesino' pelikulak emango dira gaueko 22:15etik aurrera Herriko Antzokian. Sarrera 200 pta.koa da. Bihar, hilak 24, Australiako "Drive way service" eta "Breathmakers" taldeen kontzertua izango da Gaztetxean 22:00etatik aurrera. Bestalde, gogora dezagun Euskal Herriko komikigile ezagunen lanak biltzen dituen erakusketak igandean, hilak 25, itxiko dituela ateak.

● Nautika ikastaroak

Debako Kresala Elkarteak bi ikastaroren berri emateko eskatu digu. Kirol nabigaziorako eskola homologatua da eta bi ikastaro emango dituzte azarotik aurrera: batetik, oinarrizko nabigazio patroiz titulua ateratzeko ikastaroa eta bestetik, aisialdirako itsasontzien patroiz ikastaroa. Izena emateko 907 16 75 04 zenbakira deitu edo 930 44 50 21era.

● Asteburuan ordua aldatu behar da

Urtero bezala sasoi honetan, erlojuetako orratzak aldatzeko unea ailegatu da. Zapatu-tik igandera bitartean (24tik 25era), goizaldeko 3:00ak direnean ordubete atzeratu behar da erlojua, 2:00ak izango direlarik. Ez ahaztu aldaketa egitea!



ONGARRI
zine kluba



Zuzendaria: Robert Guédiguian.
Antzezleak: Ariane Ascaride,
Gérard Meylan, Pascale Roberts.

Marius et Jeannette

Marsellan dago girotuta pelikula hau. Marius bakarrik bizi da jaustear dagoen zemento-fabrika zahar batean. Jeannette, supermerkatuan ordaintzen dioten soldata txikiarekin bere bi semeak elikatzen eta zaintzen saiatzen da. Bizilagunek ematen dioten animoei esker aurrera egitea lortzen du. Jeannette eta Marius-ek zailtasunak dituzte bizitzari aurre egiteko, baina azkenean bien arteko maitasun harremana ondo aterako da.

● Azar oaren 8ko Behobia-Donostia lasterketara joateko autobusa

Dagoeneko ohitura bihurtu da Elgoibartik autobusa antolatzea Behobia-Donostia lasterketara joateko. Aurten azar oaren 8an izango da eta izena eman nahi duenak Kiroldegira joan edo 943 74 44 15 zenbakira dei dezake azar oaren 7a baino lehen. Prezioa 1.200 pta.koa da guztientzat.

T H A N D A R R

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
24	Etxeberria	Etxeberria
25	Etxeberria	Etxeberria
26	Anduaga	Anduaga
27	Yudego	Yudego
28	Zabaleta	Zabaleta
29	Etxeberria*	Etxeberria (Errosario kalean)
30	Escala	Escala

ESCALA: Rekalde, 1
Soraluze. Tel: 75 16 38
ANDUAGA: Mendarozabal, 1
Garagarza. Tel: 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

25 igandea Foteru

GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☎ 943 74 37

AROSZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

JUARISTI

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 18
☎ 943 74 29 94

LODOSO

Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea 16
☎ 943 74 03 96

ITURGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
☎ 943 74 17 61

JAVI

Erretxindi, 1
☎ 943 74 14 80
☎ 908 77 29 32

JUAN CARLOS S.L.

Urasandi 59-61, behea
☎ 943 74 34 87

ONGI

Urasandi, 8
☎ 943 74 10 82

PAGOAGA

San Antolin kalea, 13
☎ 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 907 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
☎ 943 74 07 89
☎ 908 14 30 40

PINTURAK

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 907 74 04 40

PINTURAS ELGOIBAR FERMIN

Urasandi, 57-3
☎ 943 74 39 91
☎ 909 76 28 80

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 29 87
☎ 989 58 47 23

IPINTZA

Trenbide, 25
☎ 907 41 78 67

KIDOK S.L.

San Roke, 17
☎ 943 74 34 86
☎ 989 58 37 61

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

BETI ARGÍ

Errosario, 6
☎ 943 74 16 44

URZELAI

Santa Ana, 12
☎ 943 74 13 76

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
☎ 943 74 30 94

**Euskal
Herriaren
garaia da**

bozkatu

EH

Euskal Herritarrok